

Doña NAGORE SARASOLA OTERMIN and.

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek
Secretaria General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:
Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzarrak, 2025eko irailaren 23an izan zuen ohiko bilkuran, erakunde adierazpen hau onartu zuela, gehiengoz:

“Gazan herri palestinarraren aurka egiten ari diren genozidioari eta Israelgo erakundeekiko harremanak hausteari buruzko erakunde adierazpena

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak adierazpen instituzional hau egitea erabaki du:

Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak, Nazioarteko Zuzenbidearen printzipioak aplikatu eta NBEren Nazioarteko Ikerketa Batzorde Independentek berriki ateratako ondorioak kontuan hartuta –Israeliek Gazako zerrendan genozidio-ekintzak egin dituela ebatzi baitu–, erakunde adierazpen hau egitea erabaki du:

1. Donostiako Udalak ofizialki aitortzen du, Israeliek berak ere sinatu zuen Genozidio Delitua Prebenitzeko eta Zigortzeko 1948ko Konbentzioan ezarritako baldintzak kontuan hartuta, Israelgo agintariak eta indarrek genozidioa egin dutela Gazan, herri palestinarraren aurka.

2. Donostiako Udalak gaitzetsi egiten du egungo Israelgo Gobernua, genozidio-ekintzen arduradun gisa, eta adierazten du hango agintari nagusiek dutela, zuzen-zuzenean, palestinarrak sistematikoki suntsitzeko

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 23 de septiembre de 2025, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

“Declaración institucional relativa al genocidio contra el pueblo palestino en Gaza y a la ruptura de relaciones con instituciones israelíes

La Junta de Portavoces del Exmo. Ayuntamiento de San Sebastián, acuerda la siguiente Declaración Institucional:

El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, en aplicación de los principios del Derecho Internacional y atendiendo a las recientes conclusiones de la Comisión Internacional Independiente de Investigación de la ONU, que ha determinado que Israel ha cometido actos constitutivos de genocidio en la Franja de Gaza, acuerda la siguiente Declaración Institucional:

1. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián reconoce oficialmente que las autoridades y fuerzas israelíes han cometido genocidio contra el pueblo palestino en Gaza, en los términos establecidos por la Convención para la Prevención y Sanción del Delito de Genocidio de 1948, de la cual Israel fue Estado firmante.

2. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián condena al actual Gobierno de Israel como responsable de la comisión de actos genocidas, señalando la responsabilidad directa de sus principales dirigentes en esta estrategia de destrucción sistemática contra la población



estrategia horren erantzukizuna.

3. Donostiako Udalak erabaki du haustea harreman instituzional guztiak, edozein arlotan (kirola, ekonomia, ikasketak, kultura edo bestelakoak) direnak edo etorkizunean izan daitezkeenak, bai Israelgo Gobernuarekin, bai eta genozidioa edo genozidioa egiteko bidea ematen duten politikak babesten edo legitimatzen dituen edozein erakunde publiko edo pribaturekin.

4. Donostiako Udala bat dator Israel Gazan egiten ari dena genozidioa dela adierazi duten nazioarteko erakundeen eta erakunde humanitarioen ondorio eta salaketekin; besteak beste, NBE, Genozidioari buruzko Azterlanen Nazioarteko Elkarte, B'Tselem, Physicians for Human Rights-Israel, Amnistia Internacionala, Mugarik Gabeko Medikuek, Human Rights Watch, Giza Eskubideen aldeko Nazioarteko Federazioa eta Lemkin Institute for Genocide Prevention.

5. Donostiako Udalak genozidioa geldiarazteko nazioarteko legezko betebeharrak betetzeko eskatzen die Euskadiko, Espainiako eta Europar Batasuneko erakunde publiko guztiei. Horren barruan sartzen da Israelgo Gobernuarekiko lankidetzaren orori berehala uztea eta krimen hori egiten lagun dezaketen arma, funts edo baliabide transferentziak etetea.

Donostia, 2025eko irailaren 23a

Jon Insausti Maiterrena

EAJ-PNVren Bozeramailea

Portavoz EAJ-PNV

Ane Oyarbide Ochoa

PSE-EEREN Bozeramailea

palestina.

3. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián acuerda romper toda relación institucional, presente o futura, con el Gobierno de Israel y con cualquier institución pública o privada que apoye o legitime el genocidio o las políticas que lo posibilitan, en todos los ámbitos (deportivo, económico, académico, cultural o de otra índole).

4. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián se alinea con las conclusiones y denuncias de organismos internacionales y humanitarios como la ONU, la Asociación Internacional de Estudios sobre el Genocidio, B'Tselem, Physicians for Human Rights-Israel, Amnistía Internacional, Médicos Sin Fronteras, Human Rights Watch, la Federación Internacional por los Derechos Humanos, el Lemkin Institute for Genocide Prevention, entre otras, que han señalado el carácter genocida de las actuaciones de Israel en Gaza.

5. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a todas las instituciones públicas de Euskadi, del Estado español y de la Unión Europea a cumplir con sus obligaciones legales internacionales para detener el genocidio, lo que incluye el cese inmediato de cualquier tipo de cooperación con el Gobierno de Israel y la suspensión de transferencias de armas, fondos o recursos que puedan contribuir a la comisión de este crimen.

Donostia / San Sebastián, 23 de Septiembre de 2025

Juan Karlos Izagirre Hortelano

EH Bilduren Bozeramailea

Portavoz EH Bildu

Victor Lasa Briz

Elkarrekin Donostiaren Bozeramailea



Idazkaritza nagusia
Secretaría general

Portavoz PSE-EE

Portavoz Elkarrekin Donostia".=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, sinaduraren egunean.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a la fecha de la firma.

IDAZKARI NAGUSIA – LA SECRETARIA GENERAL

Nagore SARASOLA OTERMIN

ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE: